

ARGAZKitzak



Argazki-testu lehiaketa

- 1) Lehen pausoa erraza da: pentsa ezazu zein den zure herriko tokirik bereziena. Eta zergatik da berezia? Bada, arrunt polita delako (edo arrunt itsusia); han norbait zuretako inportantea ezagutu zenuelako; haurtzaroko oroitzapenak ekartzen dizkulako. Edo zuk nahi duzun arrazoiarengatik.
- 2) Egiozu argazki bat (edo bila ezazu haren argazki bat).
- 3) Kontaiezaguzu, ikasten ari zaren hizkuntzan, zerk egiten duen berezi toki hori. A1-B1 mailetan bazaude, gutienez 100 hitz idatzi behar dituzu, eta gehienez 200; B2-C2 mailetan bazaude, orduan gutienez 200, eta, gehienez, 350.
- 4) Bidal itzazu biak, argazkia eta testua, helbide honetara: eoipvdir@educacion.navarra.es
Bertze dokumentu batean, jar itzazu zure izen-deiturak, zein hizkuntza ari zaren ikasten, zein mailatan zauden eta nor den zure irakaslea.
- 5) Hizkuntza bakoitzean bi testu-argazki aukeratuko ditugu, bat A1-B1 mailetan, eta bertze bat B2-C2 mailetan, eta irabazleei 50 euroko bono bana emanen diegu urtarrilean eginen dugun zeremonia ttiki batean, Elkar liburu-dendan material didaktikoa erosteko.
- 6) Departamentu bakoitzeko bi lagunek osaturiko epaimahai batek aukeratuko ditu irabazleak, eta kontuan hartuko dira lanen originaltasuna eta freskotasuna, bai eta (mailaren arabera) hizkuntzaren kalitatea ere.
- 7) Ikasle bakoitzak lan bakarra aurkezten ahal du. Lanak azaroaren 11tik abenduaren 11ra bitarte entregatzen ahal dituzue.

